

## Aldundiak bukatu du Gatz Haraneko gune botanikoa, 16 arlo gordetzen dituen ingurune gazietako biodibertsitatearen birsorkuntza eta zabalkunderako

Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak eremua berregokitu du Gesaltza Añanako natura eremu hau ikertzeko eta haren balioak nabarmenarazteko

Santa Engracia lurzatian dago, 1.800 metro koadroko azalera du, La Muera errekaaren sorlekuaren ondoan, eta haren barruan iturburua bisitagune eta ingurumenari buruzko zabalkunderako gune bezala egokitzea jasotzen da

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 21a.** Gatz Haranak gune botaniko berri bat dauka, bisitariei aukera emango diena natura eremu babestu horren biodibertsitatea eta natura balioak hobeki ezagutzeko. Ramiro González Arabako diputatu nagusiak inauguratu du berregokitutako eremu hau. 16 arlok osatzen dute, zeinetan espazio gazietako landaredi espezifikoa agertuko den, halofilo deritzen espezieak, haietako asko mehatxatuak.

Halaber, proiektu horri esker, egokitu ahal izan da Santa Engracia iturburua, gatz ustiapenean erabiltzen den gatzunaren jatorria dena. *"Iturburua Gatz Haranaren funtzionamendurako funtsezko elementu bat da eta narriadura handiko egoeran aurkitzen zen"*, gogorarazi du Gonzalezek. Baita ere, azpimarratu du zona horren balioa nabarmendu izana, obren ondoren ahalbideratzen baitu bisitariak gatz sistemaren jatorrira bertara heltzea.

Berriztaturiko eremuaren barruan, interpretazio ibilbide berri bat ere badago, atsedeen guneekin, eta laneko ibilgailuetarako sarbide berri bat. Haien informazioa eskainiko dute paisaia berezi honen eta Gatz Haraneko tokirik adierazgarri eta garrantzitsuenaren inguruan.

*“Ingurumen kontakizunaz hornitu dugu Gatz Harana. Ez da paisaia berezi bat bakarrik, gune hau natura eremu bat ere bada, ingurune gaziakin loturiko biodibertsitatea eta landaredia ikertu, zaindu eta birsortzeko aukera emango diguna”, gogorarazi du Gonzalezek. Gainera, pozik agertu da gune botaniko berria dagoeneko Gatz Haranaren beste erakargarri bat delako urtean jasotzen dituen ia 90.000 bisitarientzat.*

## **Klima aldaketaren aurkako ikerkuntza**

Proiektua, zeinean 100.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egin den - %50ean EGEF europar funtsekin finantziatua-, Santa Engracia izeneko lurzatian kokatzen da, bertan baitago haraneko gatz iturburu nagusia, eta La Muera errekaaren sorlekuaren ondoan, 1.800 metro koadroko eremu batean. Izan ere, toki horretan muga bat sortzen da zona gaziaren eta ez-gaziaren artean. Lehengoratzte eta birsorkuntza lanak direla medio, berriz ere urbazterreko berezko landaredia izango da bertan datorren udaberrian. Hori guztia landare espezifikoki halofiloekin osaturik, hala nola *Frankenia pulverulenta*, *Juncus acutus*, *Hordeum maritimum* eta *Puccinellia fasciculata*, besteak beste.

Halaber, gune botanikoak eta landaredia birsortzeko lanak balioko dute azterketa eta ikerkuntza botanikorako, haren berezitasunagatik. Botanika eta genetika mailan eta, halaber, klima aldaketa arintzearen arloan informazioa emango duten espezieak dira, haietako asko mehatxatuak. *“Haranaren erdian kokatutako laborategi bat da, interes handia duena ikertzaileentzat, baita jende guztiarentzat ere”,* esanez amaitu du diputatu nagusiak.